

EGK-k 43. Batzar Orokorra ospatu du gaur Bilbon

- Bizkaiko Gaztetxoen Koordinakunde elkarteko Iratxe Uriartek hartuko du EGKren presidentzia.
- Erasmus Student Network Bilbao (ESN Bilbao) elkarte eskubide osokoa izatera igaroko da eta Equipo Europa eta Kera elkarteak EGK-ko elkarte berriak izango dira.

Bilbon, 2023ko martxoaren 25a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gaur ospatu du bere 43. Batzar Orokorra Bilboko Ibaiondo udaltegiko Ganbara gelan La Bolsa eraikinean. Iratxe Uriarte Bizkaiko Gaztetxoen Koordinakunde elkartetik Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren presidente izatera igaro da.

Honako hau izango da hurrengo bi urtetako Batzorde Iraunkorreko kideen hautaketa:

- Presidentea: Iratxe Uriarte (Bizkaiko Gaztetxoen Koordinakundea)
- Diruzaina: Uxue Guarrotxena (Uzturre Gazte Bilgunea)
- Bokalak: Antonio Dual (KaledorKayiko), Diego Muñoz (Gazteen Gurutze Gorria) eta Aitzol Olabari (Eusko Gaztedi)

Gaur goizean egindako batzarrean, Erasmus Student Network Bilbao (ESN Bilbao) elkarte eskubide osokoa izatera igaro da. Equipo Europa eta Kera elkarteak EGK-ko elkarte berriak izango dira. Gainera, 43. batzar orokorrean EGKren 2022ko memoria, 2022ko balantze ekonomikoa eta 2023rako aurrekontua eta plangintza onartu dira.

EGKren eguneroko lana jarraitzeko, www.egk.eus webgunean sartu, [Piztu!](#) buletinean harpidetu edo [Facebook](#), [Twitter](#) eta [Instagram](#) orrialdeak jarraitzea gomendatzen dugu.

Informazio gehiago

komunika@egk.eus

6888675932 (Mirene)